

2009ko uztailean bidaiarien sarrerak % 1 gehitu dira

Uztailean igarotako gau kopurua % 3 gehitu da

Eustaten datuen arabera, 2009ko uztailean 216.140 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal AEko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino ia 3.000 gehiagok; horrenbestez, % 1eko gehikuntza izan da. Aurreko urteko uztailarekin alderatuta, Bizkaia eta Arabara heldutako bidaiarien kopurua % 4 gehitu da, baina Gipuzkoara heldutakoena % 2 jaitsi da.

Etorritako Estatuko bidaiarien kopuruak aldaketa positiboa izan du, % 1ekoa, eta atzeritik etorritakoenak % 2 gehitu da, aurreko urteko hilabete beraren aldean. Araban (% 5) eta Bizkaian (% 6) gehitu egin da Estatutik etorritako bidaiari kopurua, baina Gipuzkoan kopuru horrek atzera egin du (% 6). Hiru lurraldeetan gehitu da atzeritik etorritako bidaiarien kopurua: Gipuzkoan % 3, Araban % 2 eta Bizkaian % 1.

Estatuko bidaiarien artean, Aragoi, Asturias, Kanariak, Kantabria, Katalunia eta Nafarroatik etorritakoak gehitu dira batez ere. Galizia, Madril eta Gaztela eta Leondik etorritakoen kopurua, aldiz, jaitsi egin da. Atzeritarren kasuan, bidaiari gehiago etorri da Iberoamerikatik, Suediatik, Erresuma Batutik, Frantziatik, Holandatik eta Finlandiatik, besteak beste; Alemania, Austria, Grezia, Italia, AEB-Kanada eta Portugaldik etorritakoen kopurua, aldiz, gutxitu egin da.

2009ko uztailean 422.064 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko uztailaren aldean, igaro dituzten gauen kopurua % 3 gehitu da, guztira 13.000 gautik gora gehiago igaro baitituzte. Igarotako gau kopuruak urte batetik bestera bilakaera positiboa izan du hiru lurraldeetan: Araban % 10 gehitu da kopuru hori, eta Bizkaian eta Gipuzkoan % 2.

Bidaiarien batez besteko egonaldia pixka bat luzatu da Euskal AE osoa aintzat hartuta: iazko uztaileko 1,92 egunetik aurtengo uztaileko 1,95 egunera. Araban % 6 luzatu da egonaldia eta Gipuzkoan % 4; baina Bizkaian % 1 laburtu da egonaldia. Beste modu batera esanda, 2009ko uztailean Araban batez beste igarotako egun kopurua 1,83 egun izan da; Bizkaian antzeko kopurua eman da (batez beste 1,82 egun) eta Gipuzkoan 2,16 egun.

Euskal AE osoan, plazen okupazio mailak % 3 egin du behera; aurreko urteko uztailean % 55,02koa izan zen eta aurtengo uztailean % 53,31koa. Hiru lurraldeetan eman da bilakaera negatiboa. Araban % 2 jaitsi da okupazioa, % 45,64an geratuz eta Bizkaian % 3 jaitsi da, % 50,11n geratuz. Gipuzkoak izan du plazen okupazio mailarik handiena, % 60,38koa, nahiz eta % 4 jaitsi. Logelen okupazio maila % 3 jaitsi da Euskal AE osoan.

Nekazaritza-turismoko establezimenduak: gutxitu egin dira bidaiarien sarrerak (-% 1) eta gualdiak mantendu egin dira (% 0)

Joan den uztailean 13.782 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, aurreko urteko hilabete berean baino % 1 gutxiagok. Baina hiru lurraldeek ez dute portaera homogeneoa eduki. Araban % 15 gehitu dira sarrerak; Bizkaian % 8 jaitsi dira eta Gipuzkoan % 1. Estatuko bisitariek portaera positiboa izan dute, Euskal AE osoan % 3 gehitu da: Araban % 5 igo da eta % 4 Gipuzkoan; baina Bizkaian mantendu egin da (% 0). Bizkaira eta Gipuzkoara joandako atzeritar kopurua jaitsi egin da, balio erlatiboetan jaitsiera handia izan da gainera; Araban, aldiz, kopuru hori bikoiztu egin da.

Euskal AEko nekazaritza-turismoetan guztira 42.545 gau igaro dituzte uztailean, ia aurreko urteko kopuru bera (% 0). Urte batetik besterako hazkunde tasak Araban positiboak izan dira (% 14), Bizkaian negatiboak (-% 5) eta Gipuzkoan igarotako gau kopurua mantendu egin da (% 0).

Bidaiarien batez besteko egonaldia luzatu egin da Euskal AE osoan, 2008ko uztaileko batezbestekoaren aldean. Aurreko urtean 3,03 egun ziren eta aurtengo uztailean 3,09 izan dira.

Plazen okupazio maila % 36,1koa izan da, hau da, aurreko urteko aldi beraren aldean % 9 txikiagoa. 2009ko uztailean Bizkaian eta Gipuzkoan maila txikiagoa izan da: % 32,56 eta % 43,28koa, hurrenez hurren, eta % 12tik % 8rako jaitsierarekin. Araban okupazio maila % 24,69koa izan da, 2008ko uztaileko ia bera. Logelen okupazio mailak ere egin du behera Euskal AEn, % 5.

Argibide gehiago:*Euskal Estatistika Erakundea**Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz**Tel.: +34-945-01 75 00 Fax +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es**Harremanetarako pertsona: Nerea Linaza Diarce**Tel:+34-945-01 75 05 Faxa:+34-945-01 75 01**Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es**Datu bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp*

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	07 2009	%	07 2008	%	Δ %	07 2009	%	07 2008	%	Δ %	07 2009	%	07 2008	%	Δ %	07 2009	%	07 2008	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	422.064	100	408.560	100	3	56.368	100	51.094	100	10	184.272	100	180.003	100	2	181.424	100	177.463	100	2
Estatukoak	257.138	61	254.195	62	1	40.000	71	36.114	71	11	109.790	60	107.107	60	3	107.348	59	110.974	63	-3
Atzerrikoak	164.926	39	154.365	38	7	16.368	29	14.980	29	9	74.482	40	72.896	40	2	74.076	41	66.489	37	11
Hiriburua	252.315	60	236.737	58	7	38.638	69	35.342	69	9	113.646	62	110.841	62	3	100.031	55	90.554	51	10
Litoral	58.452	14	56.440	14	4	-	-	-	-	-	20.910	11	19.138	11	9	37.542	21	37.302	21	1
Barnealdea	111.297	26	115.383	28	-4	17.730	31	15.752	31	13	49.716	27	50.024	28	-1	43.851	24	49.607	28	-12
BIDAIA-RIEN SARRERAK	216.140	100	213.156	100	1	30.754	100	29.600	100	4	101.501	100	97.808	100	4	83.885	100	85.748	100	-2
Estatukoak	132.545	61	131.225	62	1	21.529	70	20.594	70	5	61.329	60	58.046	59	6	49.687	59	52.585	61	-6
Atzerrikoak	83.595	39	81.931	38	2	9.225	30	9.006	30	2	40.172	40	39.762	41	1	34.198	41	33.163	39	3
Hiriburua	126.563	59	123.673	58	2	19.432	63	19.704	67	-1	62.639	62	60.340	62	4	44.492	53	43.629	51	2
Litoral	26.817	12	26.361	12	2	-	-	-	-	-	10.437	10	9.939	10	5	16.380	20	16.422	19	0
Barnealdea	62.760	29	63.122	30	-1	11.322	37	9.896	33	14	28.425	28	27.529	28	3	23.013	27	25.697	30	-10
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,95		1,92		2	1,83		1,73		6	1,82		1,84		-1	2,16		2,07		4
BETETZE-MAILA PLAZAKA	53,31		55,02		-3	45,64		46,52		-2	50,11		51,50		-3	60,38		62,65		-4
Hiriburua	58,43		58,58		0	48,38		50,33		-4	54,10		54,94		-2	70,50		68,51		3
Litoral	59,46		61,05		-3	-		-		-	52,86		52,41		1	63,91		66,70		-4
Barnealdea	42,54		46,90		-9	40,62		39,76		2	42,09		44,97		-6	43,92		52,12		-16
BETETZE-MAILA GELAKA	61,24		63,31		-3	54,54		55,60		-2	58,77		59,55		-1	67,31		71,95		-6
Hiriburua	67,83		67,56		0	60,73		62,42		-3	64,00		62,37		3	78,44		80,25		-2
Litoral	67,26		66,93		0	-		-		-	61,46		61,60		0	71,17		69,92		2
Barnealdea	48,85		55,10		-11	42,74		42,88		0	48,94		53,82		-9	51,35		62,31		-18
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	42.545	100	42.338	100	0	5.663	100	4.952	100	14	12.759	100	13.381	100	-5	24.123	100	24.005	100	0
Estatukoak	34.023	80	32.568	77	4	4.494	79	4.089	83	10	9.783	77	10.110	76	-3	19.746	82	18.369	77	7
Atzerrikoak	8.522	20	9.770	23	-13	1.169	21	863	17	35	2.976	23	3.271	24	-9	4.377	18	5.636	23	-22
BIDAIA-RIEN SARRERAK	13.782	100	13.958	100	-1	2.248	100	1.953	100	15	4.425	100	4.832	100	-8	7.109	100	7.173	100	-1
Estatukoak	11.440	83	11.139	80	3	1.850	82	1.756	90	5	3.557	80	3.557	74	0	6.033	85	5.826	81	4
Atzerrikoak	2.342	17	2.819	20	-17	398	18	197	10	102	868	20	1.275	26	-32	1.076	15	1.347	19	-20
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,09		3,03		2	2,52		2,54		-1	2,88		2,77		4	3,39		3,35		1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	36,10		39,52		-9	24,69		24,61		0	32,56		37,11		-12	43,28		47,10		-8
BETETZE-MAILA GELAKA	40,17		42,18		-5	29,78		25,82		15	36,13		39,05		-7	47,61		51,04		-7

Iturria: EUSTAT